



---

# ESKOLAKO ESPAZIOAK IRAULTZEKO TRESNA

---

INKESTA



2022KO OTSAILA  
AITOR YAÑEZ PEREA  
EHU - UPV

## 1. Sarrera













Dokumentu honetan inkesta bat ageri da, bere eskoletako espazioak irauli eta bestelako espazio berritzaileak sortu nahi dituen eskola ororentzat lagungarri izan dadin. Kasu honetan, hamar aldagai desberdin ageri dira, eskolek batetik laura baloratu ditzaten, 1 izanik aldagai horrekin loturiko elementu txikiena (lehentasunei, adinari, baliabideei edo dena delakoari dagokienean) eta 4 handiena. Eskola orok zintzotasun ariketa bat egin beharko luke inkesta hau betetzerako orduan eta aukeratutako aldagaiak, lehentasun zerrenda bati eta uneko baldintza errealei erantzunez.

Inkestaren funtzionamenduari dagokionez, parte-hartzaileak aldagai bakoitzean zer kolore aukeratu duten jaso beharko du, kolore horrek webgunean ageri diren oinarri teorikoetako bat (Reggio Emilia, Rosan Boschen ikuspegia, Montessori eta Makerspace) ordezkatzeko duelarik. Galderaz galdera koloreen zerrenda jaso beharko du (adib. 5 urdin, 3 berde, 2 gorri eta 2 laranja). Bukaeran, gehien errepikatu den kolorea izango da eskola horrentzat aproposena, inkesta honek planteatzen dituen mugekin.

Inkesta jarraian agertzen den taularen bitartez egin behar da. Halere, parte-hartzaileak arrazoiketa guztiak jaso ditzan, dokumentuan aurrera egin ahala, parametroen eta erantzun posibleen justifikazioa ageri da. Azkenik, argi utzi nahi da ez dagoela planteamendu idealik eta eskola bakoitzak ikuspegi bat edo batzuk nola txertatu propioki pentsatu behar duela. Izan ere, tokian tokiko errealitateak ikasleak eta ikas-irakas jarduera baldintzatzen ditu.

## 2. Inkesta

	1	2	3	4
Lasaitasuna eta estetika zer nolako garrantzia izan behar du zure eskolan?	Blue	Orange	Green	Red
Argi naturalaren garrantzia eta hau egoteko baldintzak baloratu. Lehen tasun bat al da?	Orange	Blue	Red	Green
Material naturalak eta birziklatuak erabiltzearen garrantzia baloratu	Orange	Blue	Red	Green
IKTen presentziari dagokionez, zer nolako aukerak daude?	Red		Orange	
	Green		Blue	
Lan indibidualaren presentzia zein izan behar da?	Blue	Orange		Red
		Green		
Eskolaz kanpoko agenteen parte hartzea eskolan zein izan beharko litzatekeen baloratu	Orange	Red	Green	Blue
Zein da espazioaren xede-	Green		Orange	

<p><b>taldea? (1-2 HH eta LH 1 zikloa, 3-4 LH 2.zikloa eta DBH)</b></p>				
<p><b>STEM eta STEAM gaitasunak modu integralean lantzearen garrantzia baloratu.</b></p>				
<p><b>Adimen emozionalaren lanketak zer nolako presentzia eduki beharko luke?</b></p>				
<p><b>Zer nolako integraltasuna izan behar du proposamenak? Espazio isolatu bat izango da ala eskola osoa eraldatzeko eta loturak ezartzeko proposamena izan behar da?</b></p>				

## 2. Erantzunak

	1	2	3	4
<b>Lasaitasuna eta estetika</b>	MS	RB	RE	MO
<b>Argi naturala</b>	RB	MS	MO	RE
<b>Material naturalak eta birziklatuak</b>	RB	MS	MO	RE
<b>IKTen presentzia</b>	MO eta RE		MS eta RB	
<b>Lan indibiduala</b>	MS	RB eta RE		MO
<b>Komunitatearen parte hartzea</b>	RB	MO	RE	MS
<b>Adin tartea</b>	MO eta RE		RB eta MS	
<b>STEM eta STEAM</b>	MO, RE eta RB			MS
<b>Adimen emozionalaren lanketa</b>	MS	MO	RB	RE
<b>Proposamenaren integritasuna / eskolako gainerako espazioekin lotura</b>	MS	RB	MO	RE

Makerspace (MS) = Urdina

Montessori (MO) = Gorria

Rosan Bosch (RB) = Laranja

Reggio Emilia (RE) = Berdea

## 4. Arrazoiketa

Eskolako espazio baten diseinurako antolakuntza-ikuspegia aukeratzeko parametroak.				
	1	2	3	4
<b>Lasaitasuna eta estetika</b>	Makerspace batean taldeka lan egiteko, proiektuak egiteko, eztabaidatzeko eta abar diseinatuta dago. Toki erosoak eta lasaiak bermatu behar badira ere, aukeren artean arazo handienak arlo honetan izan ditzakeena da. Zarata egon badago.	Rosan Boschen ikuspegian aldagai hauek garrantzia badute ere, proposamenaren hainbat alderdik (Gora, Iturburua, Korroa eta Lanari ekin espazioak hain zuzen) jardun oso aktibo eta desordenaturako espazioak bihur daitezke.	Reggio Emilian lan taldekako lanak lehenesten badira ere, lan individualari ere aitortza handia egiten zaio. Gainera, estetikak ezinbesteko pieza da ikuspegi honetan eta inguruaren garrantzia, dekorazioa eta abar kontu handiz zaintzen da.	Montessori espazioetan estetika eta lasaitasuna lehenesten da: espazioak lasaiak, isilak eta armoniatsuak izan behar dira, politak eta haurrentzat erakagarriak eta erosoak.
<b>Argi naturala</b>	Rosan Boschen Ikuspegian ez da honetaz ezer berezirik aipatzen.	Maker espazioetan argi naturalaren presentzia garrantzitsua bada ere, ez da lehentasunezko elementutzat hartzen. Izan ere, maker espazio askotan argi artifizial oso konkretuak behar dira, argiztapen egokia bermatze aldera (makineriaren erabileraren eta abarren ondorioz)	Montessori espazioetan argiztapen naturala elementu garrantzitsua da, lasaitasuna eta toki armoniatsuak lortze aldera.	Reggio Emilian argiztapen naturala ezinbesteko pieza da, leiho eta beirazko hormak oso beharrezkoak ikusten dira bai gela barneko bizitza kanpokoarekin konektatzeko, baita ikasleen motibazioa sustatzeko ere.
<b>Material naturalak eta birziklatuak</b>	Rosan Boschen ikuspegian ez da honetaz ezer berezirik aipatzen.	Maker espazioetan materialek aipamen berezia dute. Halere material birziklatuak edo naturalak erabiltzearen garrantzia ez da azpimarratzen eta proiektuetako askok eskatzen dute material oso espezifikoak erabilera bakarrekoak izaten dira.	Montessori ikuspegian material naturalei garrantzia aitortzen zaie.	Reggio Emilian material naturalen garrantzia azpimarratzen da haurra eta naturaren arteko loturetako bat izanik. Gainera, proiektuak eta materialak ezinbesteko pieza diren honetan, material birziklatuen garrantzia ere azpimarratzen da.

<b>IKTen presentzia</b>	Montessori eta Reggio Emilian, aurretik esan bezala, elementu naturalen erabilera lehenesten da. Hortaz, IKTek presentzia izan ahal badute ere, haien presentzia txikiagoa izaten da.		Makerspace eta Rosan Boschen ikuspegian IKTen erabilera, orain arte, oso handia izan da. Aitortu beharra dago ez dela espazio hauetan IKTen erabilera horren handia zertan indartu eta, hala egin bada, hausnarketa didaktiko-metodologiko baten ondorio gisa izan dela, edo hala uste da. Halere, horrelako ikuspegietan IKTak txertatzeko arazorik ez legoke, baina hauen presentzia beti izan behar da arrazoitua eta ekarpen egin behar diote ikasleen ikaskuntza prozesuari.	
<b>Lan indibiduala</b>	Makerspace baten filosofiaren oinarria da lan kolaboratiboa bideratzea. Hortaz, oso elementu puntualetan baino ez da emango lan indibiduala.	Rosan Boschen planteamenduan hainbat dira lan kolaboratiboa sustatze aldera bideratuta dauden espazioak, lan indibiduala espazio horietan desagerraraziz eta ikasleen arteko konexioak oso modu desberdinetan planteatzen dira. Reggio Emilian ere taldekako lanak pisu berezia hartzen du, lan indibidualari ere aitortza egiten bazaio ere.		Montessori ikuspegian lan kolektiborako espazioa ere bermatzen bada ere, lan indibidualak presentzia handia du.
<b>Komunitatearen parte hartzea</b>	Rosan Boschen ikuspegia eskolako harremanen arteko saretze integralera bideratuta dago, halere, eskolako kideen arteko saretzera mugatzen da.	Montessori ikuspegian inguruaren garrantzia aitortzen bada ere, eskoletan ikasle-ikasle eta irakasle-ikasle harremanak dira gailendu ohi direnak.	Reggio Emilian komunitatearen parte hartzearen garrantzia aitortzen da. Horrekin batera, ikasleen proiektuaren bitartez komunitate horren parte hartzea edo komunitateari ekarpena egitea bilatzen da askotan.	Maker espazioen diseinua hasiera-hasieratik komunitatearen parte hartzea eskatzen dute, parte hartze hori desberdina izanik kasu bakoitzean. Halere, maker gelak, oro har, irekita egoten dira eskola ordutegitik kanpo eta guzti.
<b>Adin tartea</b>	Montessori eta Reggio Emiliaren planteamenduek adin tarte desberdinetara eramaten badira ere, HHko geletan edota LHko lehenengo zikloan nagusitasun handiena lortu dute.		Rosan Boschen ikuspegia adin tarte desberdinetara eraman ahal bada ere, oro har, LHko 2. ziklotik gorako geletan martxan jarri da. Era berean, maker baten elementuek eta diseinuak espazioaren adin tartea definituko badute ere, oro har, ez dira nagusitu HHrako horrelako espaziorik.	
<b>STEM eta STEAM</b>	Montessori, Reggio Emilia eta Rosan Boschen ikuspegietan STEM eta STEAM gaitasunak garatzeko aukera dago, baldin eta espazioak horiek lantzera diseinatzen eta egokitasunez bideratzen badira. Ikuspegiak ez dute berezko intentziorik horrelakorik lantzeko, baina aukera eskaintzen dute.			Maker espazioak, oro har, STEM eta STEAM gaitasunak lantzera bideratuta daude.
<b>Adimen emozionalaren lanketa</b>	Makerspacetan STEAM gaitasunetatik eta lanketa konkretu batek eskaini dezakeenetatik haratago, ez	Montessori ikuspegian emozioen trataerari aitortza handia egiten zaio eta maila indibidualan introspekzioa	Rosan Boschen ikuspegian haurren beharrak alderdi honetan ere aintzat hartzen dira. Montessorin honen	Reggio Emilian Montessori eta Rosan Boschen ikuspegiaren ideia berdinak ikus daitezke. Maila

	du berezko izaerarik arlo honetan. Hots, aukerak eskaintzen ditu hala antolatuz gero.	eta norbanakoen autoerregulazioaren lanketa bilatzen da.	esplizitazioa handiagoa izan badaiteke ere, Rosan Boschen ikuspegia honetan kokatu da modu integralago batean erantzuten baitio adimen emozionalaren garapenari. Izan ere, maila indibidualako emozioen kudeaketa lehenetsi ordez, bestelako espazioak eskaintzen ditu ikasleen motibazioa, autoerregulazioa eta abar garatzeko, modu indibidual zein kolektiboan	kolektiboa eta indibiduala honetan ere uztartzen direnez, nahiko faktore nagusia dela ondorioztatu da. Gainera, ikuspegi honetan elementu horiek guztiak esplizitu bihurtzen dira: komunikazio egokiaren beharra, jendartea eta komunitatearekin elkarlana edota entzumenerako hezkuntza.
<b>Proposamenaren integritasuna / eskolako gainerako espazioekin lotura</b>	Makerspaceak gela horretara mugatu ohi dira.	Rosan Boschen ikuspegiak integritasun nahiko handia eskaintzen du, eskolako hainbat espaziok bete beharreko baldintzak definituz. Halere, oro har, eskola barruko espazioak definitzen dira, lan praktikora bideratuta daudenak. Komunak, patioak, jantokiak eta horrelakoak hausnarketetatik kanpo daude.	Montessorin eskolako espazioen proposamen integrala proposatzen da: komun, gela eta ikaskuntza txokoetatik hasita, patio eta jantokietaraino.	Reggio Emilian ere eskola osorako proposamenak aurki daitezke, elementu zehatzetan ere ekarpenak eginez. Halere, honetan espazioen arteko loturei ere aipamen egiten zaie (beirazko hormen garrantzia, ikasleen arteko harremanak eta eskolako komunitatearen arteko komunikazioa.)